

Ageriko bilkura

Donostian, 2009ko urriaren 9an

Gaur, urriak 9, egin da 90. urteurrenaren amaierako ekitaldi instituzionala, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko *Jurgi* aretoan, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:15era.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Jean Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri eta Ibon Sarasola.
- Ohorezko euskaltzainak: Pello Apezetxea, Koldo Artola, Juan Garmendia, Joseba Intxausti, Patxi Oroz, Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Gereño eta Jose Antonio Retolaza.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Dorleta Alberdi, Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Agnes Dufau, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Jose Angel Irigarai, Jose Mari Iriondo, Xabier Mendiguren, Jose Antonio Mujika, Luis Mari Mujika, Karlos Otegi, Elixabete Perez Gaztelu, Koro Segurola, Manu Ruiz Urrestarazu, Pello Telleria, Miriam Urkia, Juan Jose Zearreta eta Joxe Ramnon Zubimendi. Ezin etorria adierazi dutenak: Xabier Erdozia, Ricardo Gómez, Jose Ramon Etxebarria, Paskual Rekalde eta Jose Mari Velez de Mendizabal.

- Batzordekideak: Erramun Osa.
- Egitasmoetako teknikariak: Gabriel Fraile, Iratxe Gaztañaga, Alazne Gorrotxategi, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Elizabet Kruzeta, Lionel Joly, Ane Loidi, Julen Manterola, Ainhoa Otamendi eta Antton Ugarte.
- Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Begoña Amundarain, Kristina Arana, Jon Artza, Pili Artza, Olatz Etxeberria, Annie Etxeberri, Maixa Goikoe-txea, Gema Insausti, Iñaki Kareaga, Alazne Lopez de Aretxaga, Amaia Okariz, Josune Olabarria, Resu Orbe, Emilio Porras, Itziar Rekalde.

Hauek izan dira mahaian:

- Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusia
- Xabier Agirre, Arabako ahaldun nagusia
- Jose Luis Bilbao, Bizkaiko ahaldun nagusia
- Juan Ramon Corpas, Nafarroako Kultura sailburua
- Mercedes Chacón, Espainiako Hezkuntza Ministerioko zuzendari orokorra
- Blanca Urgell, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
- Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren burua
- Andres Urrutia, euskaltzainburua
- Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria.

Markel Olanok ongietorria eman die bertaratu diren guztiei eta Euskaltzaindiaren historiaren laburpena egin du, Euskaltzaindiari zorionak emanez, haren 90. urteurrenean. Hitz egin duten guztiek izan dituzte Euskaltzaindiarekiko laudoriozko hitzak eta elkar-lanerako gonbita egin diote. Mahaian izan direnez gain Ainhoa Beola Donostiako Udaleko Euskara zinegotziak ere hitz egin du.

Joan Mari Torrealdai *Euskaltzaindia: ekin eta jarrai* izeneko liburua aurkeztu du, Euskaltzaindiaren enkarguz Imanol Muruarekin batera egin duena.

Andres Urrutiak itxi du ekitaldia, Euskaltzaindiari lagundu dioten herri aginteei eta euskalgintzakoei eskerrak emanez. Hitzaldian zehar *Orotariko Euskal Hiztegia* gaur sarean jarri dela adierazi du, edozein hiritarren kontsultagai.

Ekitaldiaren amaieran Euskaltzainburuak oroigarri bana eman die mahaian izan diren pertsoneri, Euskaltzaindiaren logoari buruzko erresinazko eskultura, David Abajok egina.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria